

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-Kudeaketa eta Diruzaintza

2019ko ekitaldian kreditu-transferentziaren bitartez aurrekontu-aldaketak egiteko zenbait dossier behin-behinean onartzea

2019ko martxoaren 22an egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udalbatzak behin-behineko onespena eman zien 2019ko ekitaldirako luzatutako aurrekontuan kreditu-aldaketak egiteko dossier hauei:

— 60.000,00 euroko kreditu-transferentzia 08.22 4314 489.05 aurrekontu-aplikaziora — “IWINECT 2019-Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea elkartearikiko hitzarmena” —, dirulaguntza izendun baterako.

— 80.000,00 euroko kreditu-transferentzia 08.21.03 4331 471.33 aurrekontu-aplikaziora — “3 de Marzo-Zaramaga Films AIE hitzarmena” —, dirulaguntza izendun bat handitzeko.

— 10.000,00 euroko kreditu-transferentzia 08.21 4331 471.32 aurrekontu-aplikaziora — “Araba Garapen agentziarekiko hitzarmena” —, dirulaguntza izendun baterako.

— 13.000,00 euroko kreditu-transferentzia 08.21 4331 471.31 aurrekontu-aplikaziora — “Euskal Irudigileak elkartearikiko hitzarmena” —, dirulaguntza izendun baterako.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 164. artikuluan, Arabako lurralde historikoko Toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bategina onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, hamabost egun balioduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, Udalbatzari zuzenduta.

Behin betiko onartutzat joko dira dossier horiek baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 25ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO